



EUSKO JAURLARITZAK PROPOSATUTAKO PEDIATRIA-PLANAREN AURREAN, PEDIATRIAREN KOMUNIKATU OFIZIALA

Madril, 2011ko martxoaren 10ean. Eusko Jaurlaritzak aurkeztu duen “Egoeraren azterketa eta hau hobetzeko proposamenak” Pediatria Plana ezagututa, (beste neurri batzuen artean pediatria bakoitzari dagokion haur kopurua haunditzea eta erizaintzari ardura gehitzea dituena), Espainiako Pediatria Elkarteak, Lehen Mailako Espainiako Pediatria Elkarteak, Ospital-kanpoko eta Lehen Mailako Pediatriako Espainiako Elkarteak, Euskal Herriko Pediatria Elkarteak eta Lehen Mailako Pediatriako Euskal Herriko Elkarteak (9.000 profesional baino gehiagoko kolektiboa osatzen dutelarik), honakoa adierazi nahi dute:

- Eusko Jaurlaritzak, Pediatren elkarteek emandako gomendioari jarraituz, haurrak artatuko dituen medikuak Pediatria izan behar duela erabaki izana eskertu nahi dugu. Pediatriak haurra bere osotasun guztian aztertzen du eta hau da beste espezialitateetatik bereizten duena. **Haurra ez da tamaina txikiko heldu bat.**
- Hala ere, pediatria bakoitzak duen haur kopurua gaurko 899tik 1000ra gehitzeko neurria ez zaigu egokia iruditzen, eta **erabaki honek haurrei ematen zaien arretari modu ezkorrean eragingo diola, eta kontsulten saturazioa haundituko duela uste dugu.**
- Pediatriako Elkarte Zientifikoek eta adituek, pediatria bakoitzeko haur kopuru egokiena 800koa dela gomendatzen dute eta hau da beraz, lortu beharreko helburu ideala. Honen aurka joateak eta pediatria bakoitzak artatu beharreko haur kopurua haunditzeak kontsulten saturazioa ekarriko luke, eta pediatriak **haur bakoitzari eskeiniko lioken denbora 5 minutura laburtuko luke, gomendagarria, gutxienez, 10 minutu direnean;** honek jakina, atentzioaren kalitatea okertuko luke.
- Erizainak modu oso hestuan lan egiten du pediatriarekin osasunaren sustapenean, eta bere lana Haurren Osasun Planean jasota dago. **Erizainaren eta pediatriaren lanek osagarriak behar dute izan, eta lan batek ez du bestea baztertu behar.** Hala ere, detekzio eta baheketa programak, batez ere prebentzioari zuzendutako Osasun Sistema batean, pediatriak burutzen jarraitu behar dituela uste dugu.

- Erakunde publikoek arazo honen aurrean hartutako berehalako proposamenek gure ziurgabetasuna eta kezka areagotu besterik ez dute egiten. Behin-behineko konponbideak, epe laburrera begiratuta eginik daude, eta ez etorkizunari begiratzen dion ongi pentsatutako planifikazioa eginez. Gogoratu, pasa den abuztuan, erakunde berberak haurrak artatzeko adina 14 urtetik 7ra jeisteko aukera azaldu zuela pediatren eskasiari aurre egiteko konponbide gisa, zentzugabea izanagatik, bertan behera utzitako neurria.

- Argi daukagu osasun sistema krisian dagoela eta bere iraungarritasuna bermatzea zaila dela, baina era berean, **argi daukagu populazio pediatrikoari azken urteotan eskeini diogun kalitate asistentziala mantendu behar dugula**. Eusko Jaurlaritzak azaldu dituen neurriek behin-behineko izaera dutela uste dugu, eta ondoren azaltzen dugu aspalditik eta Pediatriako Komisio Nazionalarekin bateratuta eskatzen duguna:
 - Pediatriako espezialitateko MIR plaza kopurua haunditzea.
 - Irakaskuntzarako baimenduta dauden ospitale eta osasun zentru kopurua haunditzea.
 - Erretiro adina borondatez atzeratzea baimentzea.
 - Gurean ikasitako espazialistak beste herrialdetara joatea ekiditea.
 - Pediatria elkarteekin harremana mantentzea eta hauekin elkarlanean, pediatren eskasiaren aurrean irtenbide logiko eta dokumentatuak aurkitzen saiatzea, gaur egun daukagun kalitate asistentzialari kalte egin gabe.